

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Aurtengo udan Nafarroan erre diren basoen azalera 2012an erretakoa baino % 83 txikiagoa da

*Gainera, gorabeherarik eragin gabe, baimendutako nekazaritzarako erreketak burutu dira galondoan 8.750 hektareako azalera.*

Viernes, 04 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak amaitutzat eman du basoetako suteak prebenitzeko udako kanpaina. 218 hektareako azalera erre da, hau da, 2012an baino % 82 gutxiago. Orduan, 1.297 hektarea erre ziren. 218 hektareatik, 140,67 hektarea nekazaritzako lursailak dira eta 77,73 basoetako lursailak .

Horrez gain, aurtengo udan abian jarri den nekazaritzako erreketak baimentzeko ezohiko kanpaina jende ugari parte hartu du eta ez da gorabeherarik izan. Baimendutako erreketak galondoan 8.750 hektareako azalera egin dira.

### Basoetako suteak prebenitzeko kanpaina

Aurtengo udan erregistratu diren sute kopuruak nabarmen egin du behera, eta landaredia ere askoz ere gutxiago kaltetu da: 436 ezbehar izan dira guztira (2012an 621), iaz baino % 30 gutxiago. Sute gehien abuztuan izan ziren, 136 (120,24 ha kaltetu ziren). Horren atzetik daude irailean (126 eta 50,27 ha), ekainean (91 y 7,60 ha) eta uztailean (83 y 40,70 ha) izandako suteak.

Basoetako suteengatik esku-hartze gehien egin dituzten suhiltzaile-etxeak Tuteran (80 esku-hartze), Tafalla (51) eta Azkoiengoak (50) izan dira. Horien atzetik daude Lizarra (42), Iruña (38), Lodosa (30), Zangoza (22), Oronoz (20) eta Altsasu (19). Esku-hartze gutxien gauzatu dituzten eskualdekako suhiltzaile-etxeak Auritz eta Nabaskoze izan dira, 5 eta 2 esku-hartze eginda, hurrenez hurren. Gainera, Cordovillan dagoen Suhiltzaileen Etxe Nagusiak laguntza eskaini du 72 esku-hartzetan.

Basoetako suteetan zein erretako azalera izan den beherakada nekazaritza-denboraldiko (irailaren 1etik abuztuaren 31ra) baldintza meteorologikoek eragin dute. Izan ere, erregistratutako prezipitazioak historiako batez bestekoaren % 161 izan ziren. Aurreko denboraldian % 72 izan ziren.

### Galondoak erretzeko ezohiko kanpaina gorabeherarik gabe amaitu da, guztira 8.750 hektareako azalera erre ondoren

Bestalde, galondoak baimenduta erretzeko aurtengo ezohiko kanpaina arrazoi fitosanitarioengatik burutu da, eta nabarmentzeko gorabeherarik eragin gabe amaitu da. Baimendutako erreketak burutzeko aldia irailaren 6tik 24ra artekoa izan zen. Gutxi gorabehera galondoan

8.750 hektareako azalera erre zen guztira.

Guztira, erreketak burutzeko 910 eskaera jaso ziren. Nekazaritzako lursailtako 33.000 hektareako azalera burutzeko, 15.000 barrutitan banatuta. Teknikariek eskaerak aztertu ondoren, 25.000 hektarearen erreketak baimendu zen. Horietatik, kalkulatu da, oro har, baimendutako azalaren % 35 egin duela gora erretako hektarea kopuruak.

Gogoan izango denez, iragan uztailaren 5ean, Nafarroako Gobernuak ezohiko baimena eman zuen galondoak erretzeko, organismo kaltegarrien hondakinak erre eta etorkizuneko kutsatzeak saiheste aldera. Izan ere, neguan eta udaberrian eurite handiak izan ziren etengabe eta, horien ondorioz, komeni izan zen galondoak erretzea laboreak kaltetu eta bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen arazo fitosanitarioak dauden inguruetan.

Horregatik, beharrezkotzat jo zen halako erreketak baimentzea olo zoroen hazien eta lurreko beste belar txar batzuen kopurua handitzea saihesteko eta izurriteen forma negutarrak murrizteko. Hala, datozen kanpainetan ez da beharrezkoa izango tratamendu fitosanitarioen erabilera eta indarra handitzea.

Erreketak antolatu eta arriskuak murrizteko, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioak, Nafarroako Larrialdietako Agentziarekin elkarlanean, plangintza bat onetsi zuen. Plangintza horretan, lurraldea 5 zonatan banatu zen eta, zona bakoitzean, 4 egun zehaztu ziren behar bezala baimendutako nekazariak erreketak egin zituzten, eskatutako segurtasun-baldintzak uneoro beteta. Horren harrira, Foru Gobernuak kanpainan parte hartu duten eta suak kontrolik gabe zabaltzea saihesteko lan egin duten eragile guztien laguntza azpimarratu du: nekazariak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako langileak, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Foruzaingoa eta Guardia Zibilaren Seprona.